

Ahoa eskuak begiak bizkarra bularra
Nire gorputz gainean zurea
Eta betiereko minutu bihurturik denbora
bi gorputzen azpian
Bizitzazko hosto ezta zure ahoa

Ez zen ametsa izan

Boca mans uellos espalda peito
Sobre o mío cuerpo lo tuyo cuerpo
Y o tiempo feito un minuto d'eternidat
baixo los dos cuerpos
Toba fuella de vida la tuya boca

No ha estau un suenio



Denbora eta egunak

Ánchel Conte

Denbora eta egunak

Ánchel Conte

Itzulpena: Joxemari Sestorain

denonartean

Denbora eta egúnak

Ánchel Conte

Itzulpena: Joxemari Sestorain

Obra hau edozein eratan erreproduzitu, banatu, jendaurrean azaldu edo eraldatzeko, nahitaezkoa da haren titularren baimena, legeak aurreikusitako salbuespenean izan ezik. Obra honen pasarte bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos), www.cedro.org web orrira.

© Ánchel Conte

© Cénlit Ediciones - **denonartean**, 2015eko iraila

© Itzulpena: Joxemari Sestorain

© Azalaren diseinua: Unai Pascual Loyarte

LG: NA-1843-2015

ISBN: 978-84-15756-91-0

Inprimaketa: Gráficas Lizarra

denonartean

Berriainz industrialdea, 44. nabea – Berriozar (Nafarroa)

Tel.: 948 30 26 77 – Faxe: 948 30 23 31

denonartean@cenlit.com – www.cenlit.com

ZERGATIK?

ZERGATIK ARAGOIERAZ?

Ez zaigu samurra egiten liburu baten iturriaz mintzatzea, eta hori agertu nahi nioke lehenik irakurleari. Jaio nintzen eskualdean (Cinca Beherean) zenbait esamolde, atsotitz eta eletan baino ez zen nabaritzen aragoieraren arrastoa garai hartan. Gaztelaniadun familia batean hazi nintzen. Gure aitonetako batek, 1880 aldera jaioa baitzen, aragoiera higitu bat zuen berezko mintzaira. Ez nuen inoiz ahantzi aragoieraz zirtatutako haurtzaroko gaztelania hura, nahiz eta mutiko koskorra eta gaztetxo nintzela Bartzelonan eta Zaragozan bizi eta, beraz, franko ezeztatua eduki. Hortxe jarraitzen zuen ene baitan, haatik, umetako gure paisaia, jende, josteta eta lehen amodioekin batera, hats batek, leuna izanik ere, noiz esnatuko zain. Eta halaxe gertatu zen 24 urtetan, ikasketak bukatu berritan, bigarren hezkuntzako ikastetxea zuen Espainiako herri txikienera joatea erabaki nuenean, Ainsara, Sobrarbeko hiriburu zaharrera: 800 biztanle eskas herrigunean eta zertxobait gutxiago aldirietan, besterik ez.

Eskualdeko eta Ainsako auzoetako jendeak eta aragoiera osasuntsu zen beste tokietako ikasleek erakutsi zidaten ene barneko mintzaira akal hura bizi-bizirik zegoela, eskolak, apezek eta botereak ahal zuten guzia eginagatik desagerarazteko. Ez ziren ibar bakarreko hiztunak, eta haien mintzamoldeak ere ez ziren berdin-berdinak. Ordea, hizkuntza bat bakarra mintzo zen ikasgeletan. Haiek erakustun izan banituen, hizkuntzaren kontzientzia piztuz erantzun nien nik: ez ziren mintzatzen trauskil, zaldar, baldar, sinetsarazi zieten bezala; beste hizkuntza batean ari ziren. Historia eta geografia erakusten nituen geletan haiek izan nituen irakasle, haiek erakutsi zidaten hiztunek berek baztertutako

eta arbuiatutako hizkuntza. Eta ez ginen ohartzen zer garrantzitsua zen gertatzen ari zena: aragoieraren aldeko borrokaren lehen urratsak, geroko fruituen ernamuinak. Aragoiera ikasi nuen, Sobrarbeko hizkerak, eta, horrekin bat, lurraren aldeko borrokari lotu nintzaion.

Horra Ainsako inguruaren egoera garai hartan: eroria, suntsitzeko bidean; urtegiek herriak itotzen zituzten eta sortutako argindarra Euskal Herrira eta Kataluniara bidaltzen; herrixketako eskolak ixtear edo itxiak; komunikabideen gabezia gorria; abeltzaintza eta transhumantzia xehaturik basoberritze politika zentzugabearen ondorioz; finean, abian zen mundu baten akabantza. Hondamendi horren kontra jotzeko gogoia ernatu zitzaidan eta erabaki nuen jendea bere lurrean defendatu behar zela, bizibide aski zuela eta ulertarazi behar zitzaiola ezin zuela bere hizkuntza baztertu edo zapuztu. Honenbeste errotu zitzaidan uste hori, ezen jabetu bainintzen bete zela nire aurreko irakasle hark iragarri zidana: *Ainsan, edo eromena edo poesia*.

Eta, gertatu ere, halaxe gertatu zen. Berehala ekin nion poemak idazteari, ez neure ama hizkuntzan, baizik lurralde hark erakutsi zidanean. 1966ko irailean iritsi nintzen Sobrarbera, eta paper zahar batzuetan aurkitu ditut, harriturik, 1967an aragoieraz ondutako ene lehen poemen zirriborroak. Urtebete baino gutxiago, beraz, eta geroztik ez dut beste literatura hizkuntzarik erabili, bizirauteko baliabide guziak behar baititu mintzaira honek. Eta, horrelaxe, aragoierak mugak gainditu zitzan, lortu nuen sariketa bat eratzea, aragoieraz idatzitako poema hoberenarentzako sariketa, Huesca Irratiak antolatutako Huescako Olerkien Jaiaren barrenean. Veremundo Méndez izena jarri zitzaion sariari, Echo Ibarreko hizkeran idatzi zuen poetaren ohoretan. Aragoieraz idazteagatik nabarmendu zen, nahiz eta mintzaira bakararren kontzientziarik ez izan. Lehen bi urteetan neronek irabazi nuen saria, eta zenbaitek azpijokoaren errezeloa zabaldu

zuen, *Instituto de Estudios Oscenses* taldeko kideen laguna bainintzen (gaur egun *Instituto de Estudios Altoaragoneses*). Bada, sariak bide eman zuen Huescako *Olimpia* antzokian aragoiera aditu zedin, nolabaiteko oihartzuna izan zezan inguruan, eta, halaxe, erdi euskaldun erdi aragoitar batek, Franchi Nagore Lainek, haren berri izan, aurkeztu eta irabazi zuen hirugarren deialdian.

Halaxe hasi zen hizkuntzaren aldeko abia, Franchi borrokari nekaezina izan baita, ekimen askoren bultzatzailea. Bera gabe aragoiera ez zen egonen gaur dagoen lekuan. Harekin bat, beste batzuk ere gehitu ziren ekinean: *Consello d'a Fabla Aragonesa* jaio zen, 1987ko ortografia arauak eman ziren (gaur egun arrunt eztabaidatuak), aldizkariak eta liburuak argitaratu, aragoieraren lehen gramatika... eta beste gauza ugari, hizkuntzaren aldeko borrokaren funts eta euskarri direnak. Izan ere, Aragoiko botere politikoak eta elkarte zientifikoek ezikusia egiten diote aragoierari, hizkuntza izaera ukatzen: dialekto multzo bat baino ez da, omen. Horra hor heriotzarik onartzen ez duen mintzaira baten ezinbizia. Unibertsitatetik kanporatua eta autonomia erkidegoko administrazioetatik ere bai.

Egia da hizkuntzaren kontzientziak bizirik dirauela, batez ere hiriguneetan, XX. mendearen hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, eta hiztunen kopurua gora eta gora doala. Egia da, orobat, tradizioz hitz egin den lekuetan hamar mila hiztunera ez dela ailegatzen, gehienez ere; emigrazioa gelditu dela; eta jaiotze tasa zer edo zer handitu. Beraz, demografiaren aldetik belaunaldien arteko ordezkapena bermatua dago. Horrek ez du esan nahi hizkuntzaren alorrean berdin gertatzen denik, administrazio autonomikoaren ekinbide politikorik gabe bere horretan jarrai dezakeenik. Aragoiera hizkuntza minorizatu bat da, Europakoetan mehatxatuena. Gobernu sozialistak onetsi zuen lege mengel bat aragoiera eta Aragoiko beste mintzaira bereki bat, katalana,

babesteko. Bi-biak sartu dira eskola gutxi batzuetan, ikasleen borondatearen arabera eta curriculumetik kanpo. Aragoierari eta katalanari lege sozialistak aitortu zien babesa, bi hizkuntzen akademiak sortu zituen eta mintzaira hedatuenak ziren eremuetan haien irakaskuntza bermatu (norberaren borondateari jarraikiz). Baina legeak bazituen bi hutsune: ez zien ofizialtasunik aitortu zegozkien eremuetan, ezta inor behartu ere haiek ikastera. Eta ofiziala ez den eta ikasteko beharkizunik ez duen hizkuntza azkendegian da, akaberan. Gainera, hutsean gelditu zen dena PP-PAR alderdiak gobernura ailegatu zirenean eta, hizkuntzei buruzko lege berri bati esker, izena ere kendu zieten.

Tamalez, autonomia estatutu berriak «hizkuntza modalitate berekiak» baino ez zituen aipatu. Horretan oinarritu dira PP-PAR alderdiak bi hizkuntzen aurka jo eta su aritzeko. Bestalde, Aragoiko eskuin muturreko taldeek ukatzen dute katalana bertako hizkera berekia dela, eta izena ere desagerarazi dute, nahiz eta ondareari buruzko garai bateko legeak bi hizkuntzak onartu, beren izenekin. Eta jakina, izenik ez duenak izanik ez du. Horrenbestez, Aragoiko hizkuntzak dira LAPAOa (Ekialdeko Lurraldeetako Hizkuntza berekia, hots: katalana) eta LAPAPYPa (Pirinioetako eta Pirinioaurreko Hizkuntza berekia, hots: aragoiera). Aragoieraren akademia bakarra sortu da eta barrendik leherrarazi katalan arautuan ikasteko aukera ematen zuen hizkuntza politika. Tokian tokiko dialektoak irakatsiko dira. Eta, eromenaren zentzugabekeriaz, udalek dute legezko gaitasuna ezartzeko zein den darabilten hizkuntza. Bistan da arriskua: zenbat herri hainbat hizkuntza, deus ez egiteko aitzakia bikaina.

Eta beti dagoenez gauzak okertzeko bidea, borrokari eutsi dioten elkarreek oilategi bat dirudite, non alderdi politiko bataren edo bestearen eskutik doazen taldeek berenganatua daukaten hizkuntza, emaitza politikoak lortu nahian. Kaltegarria da hori, nire ustez, hizkuntzen aldeko denon

ahaleginerako. Arau ortografikoengatik ere bada lehia, eta ez txikia, eta batera behar luketen indarrak sakabanatzen dira. Galgarri gertatzen zaigu hau guzia, ezen hizkuntza herriarena baita, ez alderdiena. Ika-mika negargarri horietatik baztertu gara zenbait, baina Aragoiko hizkuntzen aldeko borrokan etsi gabe eta ditugun tresnak erabiliz; nire kasuan, aipatu dudan bezala, idatziz, 1967tik hasita. Badut itxaropena noizbait aragoiera eta katalana ofizialak izanen direla, mintzo diren tokietako ikasleen curriculumetan sartuko dituztela eta Aragoiko edozein lekutan ikasgai izanen, nahierara.

ZERGATIK LIBURUA?

Neke da idazle batentzat azaltzea zergatik adierazi di-tuen bere sentipen gordeak poema liburu batean, zergatik biluztu den, zergatik gelditu den babesik gabe irakurleak sentitu, pentsatu edo esan lezakeenaren aurrean. Barren-dik sortzen da beti olerkia (*Denbora eta egunak* honetan ere bai), eta ondoren da gogo ematen, hausnartzen eta lantzen. Lehenbiziko zatiko poemak (*Denbora*) eresiak dira; bigarrenekoak, berriz, bizizaleak, gizon heldu bati maiteminak ekarritako adore gaztetzailearen fruitu (*Egunak*). Bi-bietan, *denboran* eta *egunetan*, amodiozko poemak dira, hogeita sei urtetan hildako lagunarenganako amorezkoak. Adiskide maitea nuen, lehen maitea, ezaguera izan nuenetik izatearen eta maitatzearen zentzua erakutsi zidana. Bigarren zatian, nire bizitzan ezustean sartuta, ustez hilak edo, bestela, lozorroan nituen sentimenduak berpiztu zizkidan harenganako amodioaren ondorio. Amodioa Antoniori, haurtzaroko lagunari: bizi-bizirik jarraitzen du oraino, hirurogeita hamar urte baino gehiago ditudan arren. Eta amodioa Jesusi, egun batzuk argiz bete zituenari. Denbora aski, jakiteko mirari bat dela goizero jaikitzea, maitearen opari bat egunsenti

bakoitza, nahiz amodio hori hain laburra izan, ezen ez baitu baldintzatu nire bizitzako «denbora», baina bai argitu oparitu dizkidan «egunak». Eta, bitartean, hortxe dirau etengabe Ignacioren amodioak ia-ia berrogei urtean, neurri zehatza ematen diola guztiari, *denborari* eta *egunei*.

1969koak dira lehen poemak. Idatzi nituen jakitean haurtzarotik nire arima bizkia zena lan istripuan hil zelako berri garratza. Une horretatik, bizitzak ez zuen jarraitu alde zurretik marraztutako gidoia. Betiereko esfera duen erloju batean gertatzen den antzera, bat-batean oroitzen naiz hartaz, denbora gelditzen da eta zortzi urte nitueneko garaira itzultzen da dena; lehengo paisaiak aurkitzen ditut; sentipenak, eskola, jostetak berpizten dira; eta atzerako ibilbide horretan Antonio dut ardatz, bera da nire literatura lanetan beti ageri den mundurako bidaiaren arrazoi, zortzi, sei, bederatzi urte nitueneko Alcoleian. Udan berreskuratzen nuen galdutako denbora, inoiz uzterik izan ez dudana gordeleku-herri hartatik eramanez nindutenetik. Urte asko iraganik 1969tik, Bartzelean jada, lasai eta maitearekin bizi nintzela, lehen bezain poema saminak jaio zitzaizkidan. Prosazko nire obran, batez ere kontakizunetan, ikusten den atergabeko hutsaren min-dura. Inor ez mintzeko, luzaro egon ziren gordean 1969ko olerkiak, baita ondokoak ere (1992koak eta 1995ekoak), jendaurrean aurkezteko behar hainbat kemen noiz izanen ote nuen zain. Ez amodio homosexuala adierazteko beldurrez (irakurle ernea horretaz jabetua zegoen *No deixez morir a mía voz* izenburuko nire lehen poema liburuan, 1972), baizik betiko joana zen harenganako begiramenez.

Haurtzaroko paisaia fisiko eta emozionalek mugaturik dago denbora. Antonioren irudiaren orratzak markatzen ditu ordu guziak. Eta, bitartean, «egunak» badoaz; badira kolore guzietakoak, eta mila haizeren arnasa dira emozioak, erneak amodiotik, bakardadetik, bat-batean sortutako hainbeste sentipenetatik, idaztera bultzatzen nautenak... Amodioak

elikatzen dituen egunak. Horixe da idazkiaren bigarren zatia: betiko gorde nahi nituen uneak. Denak 1995ean idatziak, bat dira sentipenetan eta taxuan. Olerki sail osotzat jo nituen hasieran, baina gero ohartu nintzen gordetako eresi guziak argitara nitzakeela, eta hori egin nuen begi-bistakoa iruditu zitzaidalako gauza bat dela denbora, iraunkorra, ene baitan beti egonen dena, eta bestea uneak, egunak, ihesi doana, laburra izanagatik aztarrena uzten duena.

Liburua atera nuenetik 20 urte iragan dira alde-aldera eta, berrirakurtzean, jabetu naiz idaztean dardarazi ninduen zirrarak berdin-berdin dirauela. Haurtzarora, sorlekura, betiko markatu ninduten sentipenetara itzuli naiz, inoiz ahaztuko ez ditudan egun batzuen abia iheskorrera. Ez dakit liburua, orain, gogokoa dudan. Gogokoa dut, bai, esaten dudana, indar berarekin berresanen bainuke, beste hitz batzuk erabiliz, apika, baina gar berarekin. Gerozkoan beste bi poema liburu argitaratu ditut: *E zaga o mar o desierto* (2002) eta *Luna que no ye Luna / Luna que no es luna* (2014). *Denbora eta egunak* berrirakurtzean, konturatu naiz beste poema liburuetako ideia, irudi eta forma ugari ageri zirela, ernamuin, *Denbora eta egunak* sorta hartan. Beraz, esan liteke bertan dela, neurri handi batean, geroiko nire poesiaren iturria, eta kontakizunen liburuekin osatzen dudala, bereziki *De ordo sacerdotalis* (2004) izenburukoarekin.

Irakurle, liburu honek izanen ahal du oihartzuna zure baitan. Amodioa eta maitea oinazez inguraturik aurkituko dituzu hemen, denborak gozatutako bihozmina, amodioa mendratu gabe. Aurkituko dituzu, berebat, amodioak maitaleari pizten dizkion sentipen asko eta asko. Euskarara itzuliak ikustea ohore bat da niretzat, eta sinetsita nago hizkuntza eder horretan azaleratuko direla olerki hauek sortarazi zituzten bihozkada guziak.

Ánchel Conte Cazcarro
Bartzelona, 2015eko martxoa

À Ignacio

Ignaciori

O TIEMPO Y OS DÍAS

1. O TIEMPO

2. OS DÍAS

DENBORA ETA EGUNAK

1. DENBORA

2. EGUNAK

O TIEMPO

DENBORA

Tot el que es perd es perd per sempre
(Miquel Martí i Pol)

Tot el que es perd es perd per sempre
(Miquel Martí i Pol)

TIEMPO I
(1969)

DENBORAI
(1969)

Y me'n iré entabán cada día
con o peso d'un ahiera de nusatros.
Agora ye de yo...
Tu te'n yes iu sinse meta, sinse camín;
bebendo l'aire de l'adiós definitivo.
As glarimas descargan o peso,
pero ye millor sentir cómo m'esclafa,
cómo me fa trasquire o polvo.
Agora siento como si portase a tuya alma:
l'he replegada á piacetes n'os recuerdos
d'os siete años.
No la deixo, nino.
Me pesa, pero m'acompaña.
Me fa mal, pero m'aconorta d'a tuya ausencia.
M'aduya n'a marcha.

Eta aurrera eginen dut egunero
gure iraganaren zamarekin.
Neurea da orain...
Joan zinen, ez xede, ez xenda;
betirako agurraren airea edanez.
Malkoek arintzen dute pisua,
baina hobe dut sentitu nola naukan mendean,
nolatan behartzen nauen hautsa irenstera.
Zure arima daramadala iruditzen zait:
puskaka gordea
zazpi urte nitueneko oroitzetan.
Ez dut utzi, mutiko.
Zama da, baina bidelagun.
Minkor baina, zu ezean, kontsolagarri.
Bidean lagungarri.

Muerde l'ausencia definitiva.
S'agarra tan fuerte que escaña.
Y tu yeras o ñudo que me ligaba
á l'amor d'as siete añadas.
De momento, s'ha crebau tot
y o pasau ye renaixiu més vivo e més doloroso,
igual como una agulla fincada en l'alma.
Me se ye apareixida la flor d'o tuyo cuerpo
choven y cereño; a tuya riseta de nino,
as mans calients de siempre...
Y o pasau fendo morisquetas.
Cosa no ye como yera, chiquer.
Y qui pueda entender, que entienda:
Luen, he sabiu amar-te á la mía manera.
Agora yes encara més o ñudo d'o pasau.
Y una piedra, un suspiro,
una gollada bueda ent'o cielo
me valen pa recordar-te en ixe ahiera de nusatros,
en ixe hue de yo sinse tu.
De yo solo querendo-te.

Betirako hutsaren minak hozkatzen du.
Hainbeste itsasten da, itotzen baitu.
Eta zuk lotzen ninduzun korapiloz
zazpi urte nitueneko amodioz.
Bat-batean, dena hautsi da
eta biziago eta saminago berpiztu iragana,
ariman sartutako orratza nola.
Zure gorputz gazte eta lerdnaren lorea
agertu zitzaidan; zure haur irribarrea,
betiko esku beroak...
Eta, laztanka, iragana.
Lehen bezalakorik ez da deus ere, txiki.
Eta uler dezakeenak, uler beza:
urrun, zu maitatzen jakin dut, nire gisa.
Orain, iraganaren korapiloago zara.
Eta harri bat, hasperen bat,
begirada huts bat zerurantz
aski ditut zutaz oroitzeko gure atzo hartan,
zu gabeko gaur honetan.
Zure maitez bakarrik naizen honetan.

O tiempo borra endreceras y pasos.
Pero no pas o recuerdo.
Alcoleya sinse glarimas d'a primer vida.
As Ripas yeran a fin d'o nuestro mundo.
Agora, he corriu muito
y s'han feito de yo aires y tierras
d'atros camins.
Soi tornau.
He rechirau, sí.
Pero tu no i yeras.

Denborak ezabatzen ditu bidexka eta urratsak.
Baina ez oroitzapena.
Alcoleia, lehen bizitzako malkorik gabe.
Ripetan bukatzen zen gure mundua.
Orain, erruz ibili naiz,
eta beste bide batzuetako
aire eta lur bihurtu.
Itzuli naiz.
Bila saiatu.
Baina zu ez zinen.

He pisau atra vegada o polvo
d'alto t'abaixo d'a carrera,
sinse rumbo.

Mirando més con o corazón
que con os uellos.

Y he descubriu que l'ahiere
puet estare un present
y estricallar-te
baixo'l suyo peso.

Berriro hankapetu dut hautsa
kalean goitik behera,
noraezean.
Begiekin baino
bihotzarekin begiratuz.
Eta ikusi dut iragana
oraina izan daitekeela
eta bere zamaz
azpian apurtu zaitzakeela.

Me s'han empliut os uellos
de tantas cosas
que no me n'he quedau
que con o verde d'as huertas
y o royo d'as Ripas;
con os camins de polvo viello.
Tot me s'ha feito un mirallo
y en tot he vulcau l'alma
fincada en ixas estapencias nunca olvidadas.
Pero agora, cuan quiero dicir-te o que he sentiu,
no tengo palabras.

Hainbeste gauzarekin
beterik begiak,
ez zaizkit gelditu
baratzeetako berdea
eta Ripetako gorria baino;
eta hauts zaharreko bideak.
Dena egin zait ispilu
denean irauli dut arima,
ezin ahaztuzko huskerietan baratua.
Baina orain, sentitu dudana
esan nahi dizudanean, ez dut hitzik.

Falta la voz de l'amigo, o suyo ceño, a gollada.
Ye como si robasen d'o paisache a torre,
os árbols y as Ripas.
Tot ye igual, pero falta el,
a suya voz, o ceño y a gollada.

Mutil-lagunaren ahotsa falta da, haren keinua, begiratua.
Dorrea, zuhaitzak eta Ripak
paisaiatik ostu balituzte bezala.
Dena da berdin, baina hura falta da,
haren ahotsa, keinua, begiratua.

Una glarima ye cosa, nino.
Un adiós sinse parolas
ye principio d'un día nuevo.
Pero tu no vierás més as boiras:
t'has feito aire, volas alto.
Yes boira n'a mesma boira.

Malko bat ez da deus ere, mutiko.
Hitzik gabeko agur bat
beste egun baten hasiera.
Baina zuk ez duzu berriz lainorik ikusiko:
aire bihurtu zara, goian zabiltza hegan.
Laino zara lainoan berean.

TIEMPO II
(1992)

DENBORA II
(1992)

Replego'l tiempo
y á amagatons te busco
entre tanta nebulosa feita
muralla entre tu y yo.
Quiero esmachinar-te,
palpare a tuya carne
que dende nino querebe tastare.
Pero no yes carne...
¿Qué cosa yes esdeveniu?
¿Qué inmaterial realidat
dellá d'as tuyas cenisas?
¿Alcaso plevia de veire,
perque o tuyo recuerdo
me cai feito musica?
¿Bolisa de algodón,
perque me sotoba tanto mal?
¿Dorondón de miel,
perque endulza tanta amargor?

Biltzen dut denbora
eta bila nabilkizu gordean
harresi bilakatu zaigun
gandu itsu artean.
Gogoan nahi zaitut,
txikitatik dastatu nahi nuen
zure haragia ukitu.
Baina ez zara haragi...
Zer bihurtu zara?
Zer ez-gauzaki
zure errautsetatik haraindi?
Agian beira-euri,
zure oroitzapena erortzen baitzait
musika eginik?
Kotoi-bolo, gaitz latz honen
bigungarri?
Eztizko antzigar, mingots bizi honen
gozagarri?

Á yo me te presentas agora,
dimpués de tantas añadas de separación.
Yes o mesache de riso poliu,
alto de cuerpo y de uellos altos;
cuerpo siempre retantau
y nunca abastau...
Me te presentas espullau, luminoso,
y a vida retacula: tornamos, tu y yo,
t'os siete años, t'os quince,
ta la madurez con a que te tornés
encara més un deseyo.

Nigana zatoz orain,
urtetan-urtetan bereizi ondoren.
Irribarre ederreko gizasemea zara,
gorputz garaia duzu, begiak garaiak;
gorputz beti kitzikaria
eta inoiz ez atzema...
Nigana zatoz biluzik, argitsu,
eta atzera doa bizitza: biok itzultzen gara
zazpi, hamabost urte genituen garaira,
desirago bilakatu zintuen
onantzara.

Á yo me te presentas y siento,
igual como sentibe dende ninón, morire as mans
per no amorosiar-te,
per no tocar-te a polpeta d'a orella
y adormir-me sinse tartir á o tuyo canto...
¿Sabebas que te querebe?
¿Sabebas que se puet amare estando nino?
Como agora, en iste día de cuasi primavera...
Son pasadas tantas añadas que he perdiu a cuenta
d'os días y as nueits, d'os agüerros
y as estacions que no has puesto viere...
Son pasaus. Pero pensar-te ye un chilo
esmolau como navalla.
Y deván de tanto mal, querer-te
ye tan fácil como allora,
cuan, sin tu saber-lo, t'aguaitabe n'a escuela,
t'espiabe, te seguibe, carrera gran t'alto,
á pasez curtos y en silencio, ent'a casa tuya.
Y soniabe que de grans podrí mirar-te-me de cara
y sin brenca de miedo
dicir, simplement, que te querebe.

Nigana zatoz eta sentitzen dut,
txikitatik sentitzen nuen moduan, eskuak hiltzen
zu ez laztantzeagatik,
zure belarri-mamia ez ukitzeagatik
eta zure ondoan lo ez hartzeagatik, isilik...
Bazenekien maite zintudala?
Bazenekien haurretatik maite daitekeela?
Orain bezala, udaberri aurreko egun honetan...
Hainbeste urte igaro dira, ez baititut kontuan
zuk ikusi gabeko egun eta gauak,
udazken eta urtarokak...
Igaro dira. Baina zugar pentsatzea garrasi bat da,
labana bezain zorrotza.
Eta hainbeste zorigaitzen aurrean, zu maitatzea
orduan bezain erraza,
zure gordean eskolan zelatatzen zintudanean,
begiratzen nizunean, jarraitzen kalean gora,
isilik eta urrats txikietan, zuen etxeko bidean.
Eta amesten nuen biok handitutakoan
aurrez aurre begiratu, eta beldur izpirik gabe,
esanen nizula, xalo, maite zintudala.

No lo dicié...

Y m'esmicaza la idea de pensar
o que hese puesto estare si lo hese dito:
creixer encara més chuntos,
fer-se hombres á o mesmo tiempo
y, acaso, amar-te peito á peito.

No lo dicié...

Y moriés deixando-me as mans buedas
y o corazón á caramuello.

Ez nuen esan...
Baina esan izan banu
gerta zitekeenak herstatzen nau:
elkarren hurbilago haziko ginen,
batera gizonduko,
eta, apika, bularrez bular maitatuko zintudan.
Ez nuen esan...
Eta hil zinenean utzi ninduzun esku hutsik
eta bihotza betean.

Hombre, ya.

Cuerpo crebau en mala hora...

O tuyo zaguer rancuello retumbó n'as Ripas,

afogó as voces d'as grallas,

chemecó emplindo de duelo

os camins que hébanos feito

y ya nunca no tornoron á estare os mesmos.

Gizondua, jada.
Gorputz xehatua, ordu gaitzean...
Ripetan burrunbatu zuen zure azken hatsak,
beleen txilioak ito zituen,
elkarrekin ibilitako bideak
aiezka nahigabez gainezkatu,
eta ez ziren inoiz berera itzuli.

Pa tu he alzau recuerdos, imáchens, paisaches...
Pa tu l'amor de cada nueit crebando mugas de sombra
y iste renovau deseyo d'abrazar-te.
Augua recheneradera ye a tuya man alzada
dando-me l'adiós aquel día d'estiu
cuan me'n dibe d'a tuya era
y o tuyo riso amplo
feba polida la tarde
e a vrispa més roya.

Zuretzat gorde ditut oroi, irudi, paisaiak...
Zuretzat gaueroko amodioa itzalezko mugak ezabatzen
eta zu besarkatzeko gogo berri hau.
Ur bizigarria da zure esku goratua
ni agurtzeko, udako egun hartan,
zuen larrainetik nindoanean
eta zure irribarre zabalak
arratsaldea eder egiten zuenean
eta ilunabarra gorriago.

Como fa més de ventidós añadas,
contino sentindo que falta la voz de l'amigo,
o suyo ceño, a gollada.
Sinse color está la Cinca,
sinse torre, sinse árbols;
sinse as Ripas o paisache.
Sólo tu, tu solo, emplindo lo espacio.
Tu, feito plevia de veire,
repiquetiando de cutio
lo mío nombre, como cuan chugando á amagacucas
me mirabas y no salibe
sólo que per o goyo
de sentir-me rodolando n'a tuya boca.
Como fa ventidós añadas, cada amaneixer te pienso.
Y deletreyo'l tuyo nombre á boca plena
como un sano exercicio
de sobrevivencia.

Duela hogeita bi urte eta gehiago bezala
mutil-lagunaren falta sumatzen dut,
haren keinua, begiratua.
Margul dago Cinca,
dorrerik, zuhaitzik gabe;
paisaia Riparik gabe.
Bakarrik zu, zu bakarrik, espazioa betetzen.
Zu, beira-euri bihurtua,
nire izena
etengabe errepikatzen, nola kukutan jostetan
bilatzen ninduzunean, eta ni ateratzen ez,
zure ahotik nire izena aditzeko poza
izategatik baizik ez.
Duela hogeita bi urte bezala, egunsentiro pentsatzen zaitut.
Eta zure izena letraka esaten dut aho betean,
bizirik irauteko
ariketa osasuntsu moduan.

Tot ye poco pa querer-te.
Poco a nueit y poco'l día.
Cal enamplar o tiempo.
Y encara con ixo, no n'i habrá prou.
Cincuenta añadas de vida
y ventidós d'ausencia lo certifican.

Dena da gutxi zu maitatzeko.
Gutxi gaua, gutxi eguna.
Denbora behar da zabaldu.
Eta horrekin ere, ez da aski izanen.
Bizitako berrogeita hamar urteek
eta zu gabeko hogeita bik dute egiaztatzen.

¿En qué estraño firmamento te yes amagau
que tasament m'arribas como cuqueta de luz?
¿En qué inmaculada nube ye suspendida
aquela cara que alumbraba o espacio
escampando boiras igual como un sol?
Alas veces te siento á canto
como goyo renaixiu de flama viva
y alas veces te me'n fuis sinse rastro.
¿Qué camín porta enta tu, dellá de toz os camins?
¿Á qué rayo de luz agarrar-se?
¿A qué oraculo recurrir que aclarexca o misterio?
Cosa no vale en iste momento de soledat o recuerdo
d'o tuyo riso ubrindo endreceras de flors
y finestras con cheranios primaverencos.
Aquí no i queda sique o forau d'o tuyo cuerpo
cara o mío cuerpo, sinse mirallo an que reflexar-se.
¿Qué se faciό de tu, d'o tuyo riso contín,
d'o tuyo rebullir d'esquiruelo blincando
per dalto de pupitres, de libros, de golladas
que siempre alcontraban en yo a meta?
¿Án t'amagas agora que me t'escapas?
¿Yes nube? ¿aire? ¿pluya?
¿Alcaso ixa toba rosada
que iste maitín cubriba tellaus
y chelaba l'alma?
¿Án yes? ¿Qué yes? ¿Cómo clamar-te
pa crebar tanta distancia?
¿Qué fer pa acabar sabendo
que continas esistindo encara
dellá d'as mías no ascuitadas palabras?

Zein izartegi bitxitan itzali zara
ipurtargi gisa baino ez agertzeko?
Zein hodei garbitan dago zintzilik
aurpegi hura, espazioa argitzen
eta lainoa kentzen zuena eguzkiak antzo?
Batzuetan ondoan sumatzen zaitut,
gar bizitik ernatutako poza nola;
eta batzuetan joaten zara arrastorik utzi gabe.
Zein da zukanako bidea, bide guzietatik haraindi?
Zein argi izpiri heldu?
Zein orakulutara jo misterioa ulertzeko?
Bakardade honetan ez du balio
zu irribarrez oroitzeak, irekitzen lore-bideak
eta leihoak, udaberriko geranioz jantziak.
Hemen ez dago zure gorputzaren hutsartea
nirearen parean baizik, islatzeko ispilurik gabe.
Zer bihurtu zinen? Zer zure etengabeko irribarrea,
ikasmahai, liburu gainetan ibiltzen zenuen
katagorri-zalaparta hura, zer beti
niganatzen zenituen begiratuak?
Non zaude kuku, nigandik ihesi?
Hodei zara? Haize? Euri?
Agian, goizorduan teilatuak estaltzen,
arima koilatzten zuen
izotz guri?
Non zara? Zer zara? Nola deituko dizut
halako urrundura hausteko?
Zer egin jakiteko
oraindik bazarela
inork aditu gabeko nire hitzetatik haratago?

Muerto ye o paisache y muerto'l suenio
que alaceté en ilusions solidas
cuan ya hombre sabié que tu tamién hebas creixiu
dellá de risos y concietos
de zagals que esdevienen grans
sinse atras cosas
que una escuela muerta, as casas cheladas
y as mans n'as pochás.
Hebas, igual como yo, trespasau as lindes d'o indefiniu
y amaneixebas crebando tanta escureldat
d'una infancia á la fuerza escura
y una choventut que mos estié negada.
Hue no ye l'ahiere,
as uembras y o chelo se son revenius,
escobadas as carreras d'ixe grisa miseria
que mos entruchaba n'a meyocridat cutiana.
Pero tu, que tamién soniabas con camins libres,
no yes aquí pa viere que a vida continua,
encara que agora, dende dalto d'as Ripas,
tot siya igual como un cimiterio
an que son enterradas as parolas
que tu y yo hébanos sembradas n'o paisache
con o deseyo meso en un esdevenidero
d'os dos plantando fuerte cara á o tiempo.

Hila dago paisaia, hila ametsa
asmo sendoetan finkatu nuena
gizondu nintzenean jakinik
zu ere hazia zinela
eskola hila, etxe izoztuak
eta eskuak sakeletan,
besterik ez duten
giza gazteen irribarre eta apetetatik haratago.
Nik bezala, gainditu zenituen xede gabearen mugak,
hautzaro bortxaz iluntsuaren
eta ukatu ziguten gaztaroaren
ilundura urratuta, hasia zinen ernatzen.
Oraina ez da iragana,
itzala eta izotza daude ezabatuak,
eguneroko hotzepelean birrintzen gintuen
ezaldi grisa kaleetatik garbitua.
Zuk ere bide libreak amets zenituen,
baina ez zaude hemen bizitzak jarraitzen duela ikusteko,
nahiz eta orain, Ripa gainetik,
denak hilerri bat ematen duen,
non lurperatzen diren,
biok paisaian erein genituen hitzak
denborari tinko aurre egiteko
etorkizunean esperantza jarririk.

Estricallada en mil estrels
–pluya, boira y nieu en l'alma–
recuerdo a tuya voz feita eco
en tozals y peñas, n'o campanar y a plaza.
A nueit, ista nueit de nueva primavera,
me perteneix per partida dobre:
una parte de tu y atra parte de yo,
perque estoi certo que sólo que yo te pienso
aquí, chusto en iste segundo
en que cayen á churros de calient pedregada
as tuyas parolas feitas morisqueta.
Per ixo, perque sólo que yo te pienso,
no deixaré que naide me robe o miraglo
d'a tuya resurrección n'o recuerdo.
M'acorruco n'o leito d'o pasau
y bi amanexes tu. Tamién me perteneixes.
Defiendo a tuya imachen, la revivo, la retiengo.
Entremistante, tanco uellos y corazón
pa encletar-te en iste mundo de nusatros.
Y que naide no me niegue o dreito
á fer-te de yo agora que dengún no te tiene.

Mila izarretan xehatua
–euria, lainoa eta elurra ariman–
gogoan dut zure ahotsa, egina arada,
mendigain eta haitzetan, ezkildorrean eta plazan.
Gaua, udalehen berriko gau hau,
nire dut bitan:
zati bat zurea da, bestea nirea,
bai baitakit nik bakarrak zaitudala gogoan
hemen, doi-doi segundo honetan,
kazkabar beroa erauntsika ari duenean,
zure hitzak laztan bihurtuak.
Horregatik, nik bakarrak zaitudalako gogoan,
ez diot inori utziko zure piztueraren miraria
oroimenetik ostu diezadan.
Kuzkurtzen naiz iraganaren etzalekuan
eta agertzen zara. Neurea zaitut zu ere.
Zure irudia dut babesten, biziarazten, atxikitzen.
Bitartean, ixten ditut begiak eta bihotza,
gu bion munduan hesitu zaitzadan.
Eta ez diezadatela uka zu nire egiteko eskubidea
inork bere ez zaituen honetan.

Perque t'he quiesto,
sé que he viviu.
Perque te quiero,
soi conscient de que no estoi muerto.

Maite izan zaitudalako dakit
bizi izan naizela.
Maite zaitudalako dakit
ez nagoela hilik.

Yera fácil caminare á o tuyo canto
camín d'a escuela y tornar ta casa.
Fácil memorizar ríus y monts
y as cantas faxistas escritas n'a pizarra.
Fácil amagar os míos sentimentos.
Y fácil chitar-se cada nueit
sabendo que á l'atro'l día
a historia tornaríá á estare a mesma
y tu te posarías en o mesmo pupitre,
bañarías a plumilla en o mesmo tintero
y me te mirarías de bislai y redirías.
O que nunca no he puesto sabere
ye per qué a vida no s'aturó
cuan, sin parare cuenta, me rocés a man
y s'ubrió en yo un mar
de sentimentos novos
que m'emplión o cuerpo de volitos de muixons
y aireras nunca antes sentidas.

Erraza zen zure ondoan ibiltzea
eskolarakoan, eta etxera itzultzea.
Erraza gogoratzea ibaiak eta mendiak
eta abesti faxistak, arbelean idatziak.
Erraza sentipenak gordetzea.
Eta erraza gauero oheratzea
jakinik biharamunean
historia errepikatuko zela
eta zu idazmahai berean eseri,
luma tintontzi berean busti,
niri saiheska begiratu, eta irribarre eginen zenuela.
Baina inoiz ezin izan dut ikasi
zergatik bizitza ez zen gelditu,
ohartu gabe, zuk eskua ukitu
eta zirrara berrien itsasoa
zabaldtu zitzaidanean:
sekula sentitu gabeko txori hegadez
eta haizetez bete zidaten gorputza.

TIEMPO III
(1995)

DENBORA III
(1995)

O punto'l día zarra o rolde d'ausencias
que redolan cada nueit dende que te'n fues.
O punto'l día ye un zurriagazo que empenta
enta carreras que siempre son iguales
podrí debuiñar-las de memoria sobre fuellas,
en cuadernos y parez: chens, árbols, autos...
tacas que m'atochan y no me dispiertan.
O punto'l día ye o momento aceto de deixar-te
arrinconau n'o recuerdo á l'aspera
de que a nueit te torne ta yo
y chuntos descansemos sinse que dengún pueda
crebar o misterio de dos hombres amando-sen
dica que o nuevo día amaneixca.

Goizargiak ixten du, joan zinenetik,
gauero inguruan dudana hutsuneen zerrenda.
Goizargiak kolpez bulkatzen du
beti kale beretara
buruz marraztu nitzake orri,
koaderno eta hormetan: jendea, zuhaitzak, autoak...
egurtu bai, baina esnatzen ez nauten orbanak.
Goizargia da zu oroimenean zokoratzeko une garrantza
esperoan gauak nigana itzul zaitzan
eta atsedean har dezagun elkarrekin
egun berria urratu arte,
bi gizonek elkar maitatzeko misterioa
inork hautsi ezin dezan.

Descubriemos a muerte á o mesmo tempo
tu y yo, y alcaso tamién os otros zagals
que dica ixe momento yéranos pura vida...
Morió Manolita.
Y yera como nusatros,
heba chugau con nusatros,
con nusatros iba á escuela.
Aquel cuerpet vestiu de blanco
y a suya careta agún més blanca
mos dio un estremezo
que encara duraba cuan ya de nueits
mos achuntemos toz n'a placeta l'Augua
y pensábanos que ela yera un estrel
cualsiquier pinchau n'o cielo.
Te m'amané muito pa poder sentir que tu vivibas.
D'os dos amors que tenebe
no me'n quedaba sique un, pensé.
Y lo pienso encara.

Batera topatu genuen heriotza
zuk eta biok eta, agian, beste mutikoek ere,
ordura arte bizi-poza besterik ez ginenok...
Manolita hil zen.
Eta gu bezalakoa zen,
gurekin jostatua,
gurekin eskolatua.
Zuriz jantzitako gorputz txiki hark
eta aurpegitxo zuriagoak
dardarazi gintuen gaueraino,
denok Uraren plaza txikian bildu
eta uste genuenean edozein izar
izan zitekeela, zerutik zintzilik.
Hurbildu nintzaizun,
bizirik zeundela sentitzeko.
Nituen bi maitaleetatik
bakarra gelditu zitzaidala pentsatu nuen.
Horixe bera pentsatzen dut oraindik.

No ye tiempo de chugare á pitos
ni á amagacucas.
Ni de puyar entre boiras enta Santa Cruz
o día de santa Catalina...
Ni de remullar-se en porreta en Valdemoros,
ni de mirare nidos de cardelina
entre as pereras d'a huerta
en que salíbanos d'a escuela
cuan as primeras calors
apedecaban aquels hiviernos interminables.
Ni tampó de fer fuina d'a escuela
pa replegar-mos a pandilleta
n'o Tozal de Carrasco
deixando pasar o rato
con a orella parada
pa sentir o reloch d'a ilesia.
No ye tiempo de morir de nostalchia,
que os siete años tamién fueron
silencio y miedo,
parolas afogadas d'una guerra encara viva
y o retrato d'o dictador pinchau n'a paret
redindo-se de toz nusatros.
Per ixo no ye tiempo de recuerdos colectivos.
Si me'n voi tazaga, yes tu o que m'empenta,
y a tuya calient gollada l'unico motivo.

Ez da puxtarrietan,
ez kukutan ibiltzeko garaia.
Ez Santa Kruzera igotzeko
Santa Katalina egunean...
Ez Valdemorosen biluzik bainatzeko,
ez karnaba habiak bilatzeko
baratzeko udareondoetan,
eskolatik ateratakoan,
lehen eguraldi beroek
negu bukaezin haiek lurperatzen zituztenean.
Ez eskola-piper eginez
lagunartean elkartzeko
Carrascoko muinoan,
denbora pasatzen utziz,
belarria erne
elizako erlojua noiz adituko.
Ez da oroiminez hiltzeko garaia,
isiltasuna eta beldurra ere
izan baitziren zazpi urte genituela,
bizirik zirauen gerra baten hitz itoak
eta, horman zintzilik, diktadore baten erretratua,
gutaz barrez.
Horregatik, ez da oroitzapen kolektiboetarako garaia.
Zuk, ez beste inork, naramazu haurtzarora,
eta zure begirada beroa da motibo bakarra.

Y o mundo no s'escachó
con a tuya ausencia;
se faciό uembra y camín sinse retorno.
Con o tiempo s'afogo una dolor
que ya ye carne y uestos
d'a mía propia naturaleza.
Y aquí soi, plantando fuerte.
Asobén con tu,
alas veces solo, sabendo
que cuan o tiempo espaza
o sol que alumbra no ye o sol,
ye o tuyo recuerdo.

Eta mundua ez zen hondoratu,
zu gabe:
itzal bihurtu zen, eta bide itzulezina.
Denborarekin samin bat ito zen,
jada ni baitako
haragi eta hezur dena.
Eta hemen nago, indarrean tinko.
Askotan zurekin,
zenbaitetan bakarrik, jakinik
aterizkian
argitzen duen eguzkia ez dela eguzkia,
zure oroitza baizik.

Nueits y leitos, amants y amaneixers
bela vegada alegres,
á ormino acetos...
Tu, luen, perdiu n'o tiempo
yes un punto referencial insustituyible.
Toz os cuerpos que he amau son uembras
cara á o tuyo cuerpo
que ni sisquiera podié coneixer.
No sé que hese puesto estare
dispertar á o tuyo canto,
sólo sé o que ha estau no fer-lo.

Gauak eta oheak, maitaleak eta egunsentiak
inoiz gozoak
maiz mikatzak...
Zu urruti, denboran galdua,
ezinbesteko giltzarri.
Maite izan ditudan gorputzak itzalak dira
arrotz zitzaidan
zurearen aurrean.
Ez dakit zer izanen zen
zugandik hurbil esnatzea,
bakarrik dakit zer den hori ez egitea.

Hue ha estau a tuya foto,
a única que te quité
aqueel verano, o zaguer, n'a tuya era,
o que m'ha esforigau n'os recuerdos.
Bi ha un riso, o mesmo riso de cuan yeras nino,
pero no yeras ya un zagal,
t'hebas feito gran, estabas un hombre,
y per ixo yera més poliu vier-te redir
mirando-te-me fito fito,
esparcindo tanta luz
que encara m'alumbra agora,
cuan fa tantas añadas
que apedequé pa siempre
l'asperanza de trasquir abonico
a tuya saliva esfeita en parolas.

Zuen larrainean
azken udan
egin nizun argazki bakarrak
murgilarazi nau gaur gogorapenetan.
Irribarre bat dago, txikitako zure irribarre bera
baina ez zinen jada mutiko,
gizon baizik, handitua ordurako.
Horregatik zen ederragoa zu irribarrez ikustea
niri begirik kendu gabe,
oraindik argitzen nauen
argia zabalduz,
urte asko joan baitira
betiko lurperatu nuenetik
zure listua, hitz bilakatua,
poliki irensteko itxaropena.

Zarré os uellos o día d'o primer beso
perque no yeras tu qui lo me feba.
Tanqué os uellos y as mans y as orellas
perque cosa teneba sentiu si tu faltabas...
O tempo m'acostumbró y he puesto
fer l'amor de cara,
o que nunca he puesto ye saber con quí yo estaba.

Itxi nituen begiak lehen musuaren egunean,
ez baitzenidan zuk eman.
Itxi nituen begiak eta eskuak eta belarriak
ez zuelako deusek zentzurik zu gabe...
Denborak ohitu ninduen eta amodioa
aurrez aurre egin ahal izan dut,
ez, ordea, inoiz zeinekin ari naizen jakin.

M'empentas con tanta fuerza
que cosa no puet aturar-me en ista corrida
sobre o gudrón d'as carreras
d'una ciudat que nunca no ha estau casa mía.
M'empentas y te me portas enta Alcoleya.
Y astí, dende dalto d'as Ripas,
tot se torna conocimiento: domino as cosas
y volo imitando falceños y cigüeñas
que, como dende siempre, creban a calma d'a tarde.
De momento dispierto. Son as seis, estoi en Barcelona
y encara cal que corricha una ripa de libretas...
Per un momento –no sé cuánto- o mundo ha estau
tan chicorrón que sólo tu y yo i cabébanos.

Horren bortitz bulkatzen nauzu
ezin bainau deusek geldiarazi
sekula nire etxe izan ez den hiri baten
kaleetako asfalto gaineko lasterraldi honetan.
Bulkatzen nauzu, eta Alcoleiaraino naramazu.
Eta hemen, Ripa gainetik,
dena da ezaguna: mendean ditut gauzak
eta, beti bezala, arratsaldeko lasaitasuna hausten duten
sorbeltz eta zikoinen antzo naiz hegatzten.
Bat-batean esnatu egin naiz. Seiak dira, Bartzelonan nago
eta zuzendu beharra dut koaderno pila bat...
Une batean –ez dakit zenbatekoan– mundua txikia zen,
eta zu eta biok baino ez ginen kabitzen bertan.

doña pepita voz chilona
oración pa empenciare o día
uellos encara apegaus
mans cheladas
que no calienta la estufeta de leña
abre toza fuella
a tabla d'o siete
os pecaus capitals
as bienaventuranzas
perqué nieva y perqué pleve
a capital d'italia

recreyo a meyo maitín
corridas y chapetas n'a plaza
adrento adrento

moisés o paso d'o mar royo
chaime primer y a conquista de valencia
dictado y muestra
padrenuestro avemaría
y gloria
caralsol mans t'alto
pa rematar a mañana

chenta

dos horas més d'escuela
rezo y canta pa rematar

doña pepita karrankaria
eguna hastean errezoa
itsatsita oraindik begiak
izoztuak eskuak
ez baitu berotzen egur-estufak
zuhaitz motzondo erro hosto
zazpiko taula
bekatu nagusiak
zoriontasunak
zergatik egiten du euria zergatik elurra
italiako hiriburua

goizerdian atsedenaldia
lasterrak eta txapa-jokoak plazan
barrenera barrenera

moises igarotzen itsaso gorria
jaime lehena eta valentziako konkista
diktaketa eta kaligrafia
aitagurea eta abemaria
eta gloria
caraelsol eskuak goian
goiza bukatzeko

bazkaria

bi ordu gehiago eskolan
errezoa eta kanta amaitzeko

dimpuesas a libertat
a plaza emplida de ninos
corridas marro pirulos chilos
entre toz tu y yo
yo y tu aire y uembra
entre tanta escureldat
luz y rayo
a tuya gollada
o tuyo riso
o tuyo paso tobo
cartera n'a espalda
resón de zagals dende luen
